

COP21



Mikel Zurbano

EHUKO IRAKASLEA

Bizi dugun krisi multidimentsionalak kapitalismo globalaren mugak erakusten ditu. Krisiak jota dago kapitalismoa arlo ekonomikoan, sozialean, zaintzan, baita ekologiaren eremuan ere. Kapitalismoaren egungo kudeaketa liberalaren ordaina adar askotako krisia da, eta bere adierazpen larriena agian ingurugiroan eragindako kaltea. Zehazki, klima aldaketa krisi ekologikoaren ispilu nagusia da eta horren apartekoa bere eragin ahalmena, ezen kontzientzia globala eraiki den horren aurkako erantzunaren beharra aldarrikatuta.

Mendebaldeko herrialde garatueta-ko gobernuen erantzukizuna bistakoa da eta orain arte ez dute behar bezalako neurriak hartu fenomenoari aurre egiteko eta karbono gabetze prozesua itzulezinezkoa bihurtzeko. Kyotoko protokoloaren gabeziak luze eta zabal hitz egin da azken urteetan. Mugimendu sozialen aldetik eta lan mundutik ere aldaketa klimatikoaren aurrean eman beharreko erantzunari ez zaio ipini behar zuen arreta guztia. Naomi Kleinek dio ohartu beharra daukagula gure gizartearen oparotasuna ekarri zuen iraultza industrial koloka jartzen ari dela bizitzaren euskarri ditugun natur sistema guztiak. Erakunde ugarien estimazioek aurreratzen dute beroketaren eragin globala oso larria izango dela mende honetan zehar, ekonomia dinamikaren eta paradigmen aldaketarik ezean. Esaterako, Energiaren Nazioarteko Agentziak mende amaierako tenperaturak sei gradu gora egingo duela estimatzen du.

Beroketaren aztarnak bistakoak izaten hasi dira dagoeneko, baina bi gradu gehiago igoko balitz munduko batez besteko tenperatura, 280 milioi pertsonen bizilekuak urpean gera litezke eta lau graduko igoerak 600 milioienak ureztatuko lituzke. Parisen

Beroketaren aztarnak bistakoak izaten hasi dira dagoeneko baina bi gradu gehiago igoko balitz munduko batez besteko tenperatura, 280 milioi pertsonen bizilekuak urpean gera litezke eta lau graduko igoerak 600 milioienak ureztatuko lituzke

klima aldaketaren gailurrari, COP21 delakoari, hasiera eman zaio azaroaren 30ean. Gailur horretako asmoa da Kyotoko protokolutik (1997) harago joatea eta herrialdeentzat loteslea izango den beste bat sinatzea. Honen helburua beroketa globala industria aurreko aroarekiko bi graduko muga ez gainditzea litzateke eta horretarako herrialdeek emisio kutsakorrak gutxitzeko konpromiso irmoa hartu beharko lukete.

Nolanahi ere, orain arte gailurra presatzeko bidean egindako herrialdeen arteko topaketa eta hurbilketa prozesuetan ikusi ahal izan dugunez, helburu hori betetzea zaila izango da. Nazio Batuen Erakundeko 195 estatuak 150ek klimaren desregulazioaren aurkako borrokan egingo duten ekarpena aurreratu dute, etorkizun iluna iragaritzen baitute. Hasteko, ekarpen horiek borondatezkoak izango dira, beraz ez dira lotesleak izango. Gainera, estatuen konpromiso horiek 2030 urtera bitartean tenperatura 2,7 gradu baino gehiago igotzea saihestuko lukete eta, adituen arabera, zenbaki garai horrek ezinezko egingo luke mende amaierako 2 graduko topearen barruan kokatzea tenperatura igoera. Sindikatuak, GKEk eta gizarte mugimenduek urriaren 20an Bon hirian aurkeztutako azterketa alternatibo batean ere konpromiso ahul hori salatu zuten.

Karbono apaleko eta erregai fosiliek gabeko energia ereduaren trantsizioarako COP21 gailurreko bi helburu behinenak berme guztiekin lotzea ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. Gailurraren agertokitik kanpo dauden beste irizpide batzuk kontuan hartzea ere beharrezkoak dira, besteak beste, erregai fosilei emandako diru laguntzak alboratzea, garapen bideko herrialdeei finantzaketa erreala bideratzea eta energia berriztargarrien aldeko erabateko konpromisoa hartzea. ■